2022-2023 SEASKAKO NORABIDEAK

1. Sarhitza

« Euskal Herrian euskaraz, nahi dugu hitz eta jolas, lan eta bizi euskaraz. Zabal bideak eta aireak gure hizkuntzak har dezan arnas. Zer Euskal Herri litzake bere hizkuntza ere galtzen duena. Ez al dakizu euskara dela Euskaldun egiten gaituena? » dio, besteak beste Xabier Amuriza bertsolariak 1984 urtean idatzi eta Oskorrik luzaz kantatu doinu ezagunak.

1994 urtean Seaskak Hezkuntza Ministeritzarekin elkarte kontratua izenpetu biharamunean idatzi zen Seaskako Hezkuntza Proiektua, urte luzeetako esperientziaren ondorio. Geroztik ikastolak garatu dira, ikasle kopurua emendatu da azkarki, garaiak aldatu dira eta Hezkuntza Proiektua eguneratzeko beharra dugu.

Abenduko Ikastolen Kontseiluan hasi genuen eguneratze prozesua eta geroztik Pedagogia Kontseiluaren babesean (buraso, langile, irakasleak biltzen dituen hezkuntza egitura) hainbat bilkura eta gogoeta egin dira azken hilabeteetan, 2022/2023 ikasturtean segida ukanen dutenak. Lehen bezala orain ere, Hezkuntza eta Hizkuntza elgarren ondoan elgar elikatzen duten Seaskaren bi zutabe nagusiak dira. Gure xedea ez da gure ikasleek euskara eta frantsesa edo hirugarren hizkuntza bat ere ikas dezaten, ingelesa edo txinera ikasiko luketen moldean. Gure xedea, eleaniztun izanik ere, ikasleak orain eta geroan euskaraz bizi daitezen da.

Helburu hori, euskaldun izaitea lortzea ez da soilik ikasleen bizkar ezartzen ahal, ez eta irakasleen gain soilik edo gurasoen gain ere ez. Denen ardura da eta bakoitzarena, Hezkuntza komunitate osoarena, bai eta inguratzen gaituen jendartearena ere. Denon artean, hizkuntza ohiturak aldatu behar ditugu, hizkuntza eta hezkuntza baldintzak aldatu behar ditugu eta horretarako Hezkuntza Proiektu sendoa behar dugu, gure baitan eta kanpoan eragiteko.

Euskal hezkuntzaren ekosistema horretan, Frantziako agintarien eragina handia da noski. Azken bost urteotan, Emmanuel Macron president dugunetik Brebeta ezin da osoki egin euskaraz eta Baxoan Matematika eta Historia-Geografia ez dira gehiago euskaraz presentatzen ahal. Frantsesa jaun eta jabe den jendartean (administrazioan, hedabideetan, eguneroko bizitzan), euskarak irabazitako eremuak ez ditugu galtzerat uzten ahal. Azterketak frantsesez baldin badira, automatikoki irakaskuntza frantsesera lerratzen da, eta hori ez dator bat bultzatzen dugun murgiltze ereduarekin. Borroka hortan ez gira bakarrik, tokiko instituzioen babesa dugu. Babes hori, gehienetan bazterretik gu txalotzeko egin ordez, gurekin batera zelaian elgarrekin lanean, elgar babestuz eta borrokan aritzeko izan dadin lortu behar dugu, gure haurren eskubideen alde.

2. Proiektuak

2022 urteko irailean ez dugu ikastola berririk irekiko. Lehen mailetan kopuruak egonkorrak izanen dira, aldiz, ikasle gehiago izanen dugu lizeo eta kolegioetan.

Gainezka egin duen Piarres Larzabal kolegioa arintzeko bostgarren kolegioa Senperen idekiko dugu 2023ko irailean. Senpereko herriko etxeak eskaini digu lurra eta finantzamenduaren zati handi bat Pirinio Atlantikoetako Departamenduak segurtatuko du. Kolegioaren antolaketa pedagogikoa ere lantzen hasiak gara. 2022-2023 ikasturtea transizio urtea izanen da Sara, Senpere eta Azkaingo ikastoletako 6.eko ikasleendako, ikasturte hau Xalbadorren edo Piarres Larzabalen eginik ere, 2023-2024 ikasturtean Senpereko kolegiora joanen baitira 5. urtea egitera.

Lizeoak heldu den irailean jauzi berri bat eginen du ere, 400 ikasleen heina gainditurik. Lizeoaren etorkizunari buruz gogoeta abiatu dugu, kolegioetako eta lizeoko administrazio kontseiluekin, 2022-2023 ikasturtean segituko duguna.

3. Euskara

3.1: Legea

Konstituzio Kontseiluaren erabakiaren ondoren, 2021eko abenduaren 16ko zirkularrak murgiltze eredua hein batean babestu badu ere, hizkuntza gutiagotuak garatzeko lege baten lortzeko lanean segituko dugu. Ipar Euskal Herri mailan hizkuntza politika berri bat, Brebeta eta Baxoa euskaraz izan daitezen, eraikuntza publikoak finantzatzeko gaitasuna izanen dira lehentasun. Orokorkiago, Frantzian Hezkuntza sistema hiperzentralizatua deszentralizatu eta Ipar Euskal Herriak berezko hezkuntza sistema ukan dezan lan eginen dugu.

3.2: Euskara plana

- **Irakasleekin**

Euskal hiztun oso eta aktiboak sortzea dugu helburu. Gure hezkuntza proiektuaren erdigunean diren euskarazko gaitasuna, erabilera eta euskal hiztun komunitatearekiko atxikimendua transmititzeko irakasgai funtsezkoa dugu euskara, nahiz eta bistakoa den bezala, beste irakasgai guztietan eta gelaz kanpo ere helburu horrekin aritu behar garen. Azken urteetan lehen mailako ahozkotasuna landu dugu. Bigarren mailetako euskal programa osatzea dugu xede orain. Ez dugu euskarazko irakasgaian transmititu nahi dugunaren programa eta progresio adosturik. Irakasleek, urteen poderioz, berek sortzen dituztenez gain, material desberdinak hartzen ikasi dute, baina progresio koherente eta koordinatua sortu behar dugu ikastetxe batetik bestera ikasleek ikasten dutenaren artean. Ikasgelaz kanpoko eremuetan ere kezkak konkretizatzen dira, erabilera neurketek emaitza hauek eman baitituzte aurten: Kolegioan %34,5, lizeoan %52. Ikastolen Elkartearekin elkarlanean eramanen da xede hori, eta beharren arabera, bigarren mailako bi irakasle denbora erdiz libratzeko aukera aurreikusten da.

- **Laguntzaileekin**

Bizijolas proiektuaren esperientziak erakusten du behar berezia dagoela kanpo espazioak ere ildo-estrategiko baten arabera diseinatu eta antolatu daitezen, Seaskako Hezkuntz proiektua osotasunean garatzeko, eremu formala eta ez-formala aintzat hartuz.

Gelaz kanpoko une eta guneen inguruko hausnarketa, lanketa eta formakuntza espezifikoak martxan ezarri zirela. Hala nola, Elkarbizitza proiektua Seaskako psikologo, psikimotrizilari eta hizkuntza proiektuko kideekin batera sortua eta azken hiru ikasturteetan eraman dena ikastola ezberdinetako talde pedagogikoekin (erakasle eta langileak). Ber taldeak Uda Lekuriken elkarlanean sorturiko "Haurrak euskaraz loratzen lagundu " fomakuntza. Ikastoletako langileeri zuzendua eta hau ere azken hiru ikasturteetan eraman dena. Ortzaizeko ikastolarekin ere kanpo espazioa eraldatzeko proiektua eraman da.

Euskararen erabilera eta ezagutza sustatzea batetik, eta balio hezitzaileetan eraikitako elkarbizitzarako testuinguruak sortzea bestetik izanen ditugu xede ondoko urteetan. 3 ikasturtetan landuko diren 4 urratsez (Behaketa - Diagnostikoa - Esperimentazioa - Bilana) osaturiko prozesu bat abiatuko dugu Helburua kanpo espazioaren egokitzapen bat burutzea izango da. Proiektu honetan parte hartuko luketen ikastolen kide ezberdinen (irakasle, langile, ikasle, guraso…) inplikazioa ezinbestekoa izanen da prozesua aberastu eta motibazioa mantentzeko.

- **Burasoak euskaldundu**

Azken urteetan bezala, AEKrekin buraso orori euskaraz ikasteko ahala emanen zaio, formakuntzarako eskubiderik ez duten burasoei, euskarazko formakuntzaren ordainketan lagunduz. **Horrez gain, urte guziz, euskara xarta buraso guziei ezagutarazi eta izenpetaraziko da (LOT).**

4. Hezkuntza

4.1 : Hezkuntza Proiektua

Gorago sarhitzan aipatu bezala, 2022/2023 ikasturtean Seaskako Hezkuntza Proiektuaren eguneratze lanetan segituko dugu buru belarri. Hezkuntza proiektuak ditu finkatuko ondoko urteko urratsak, eta finkatutako helburuak lortzeko urratsak, besteak beste formakuntza jarraikia indartuz eta antolatuz, irakasle, langile eta burasoei begira.
(Hemen Pedagogi Kontseiluak ikasturte huntako azken bilkuran 2022/05/19an prestatuko duen txostena gehituko dugu, emendakinekin batera ekainaren 10ean).

4.2 : Inklusioa

Seaskaren Hezkuntza Proiektuaren ardatz garrantzitsua inklusioa den heinean, Hezkuntza Taldeak gogoeta bat abiatu du inklusioari buruz Seaskaren irizpideak eguneratzeko. Inklusioaren gaia euskararen betaurrekoetarik ere begiratzeko hautua eginik izan da, ezberdintasunak aintzat hartzeko aukera berriak eskaintzen dituelakoan. Inklusioari buruzko gogoetaren emaitza Hezkuntza Proiektua eguneratzeko ariketan ekarpen gisa txertatuko da, hain segur ere heldu den ikasturte hastapenean.

4.3. : Formakuntza

Hezkuntza proiektuan adostuko ditugun helburu eta norabideak gauzatzeko Seaskaren formakuntza saila indartuko dugu. Seaskaren atal ezberdinetan eraginen du, guziak norabide berean aritu gaitezen. Formakuntza sailak Seaskaren komunitatea osatzen duten langile guziei (Irakasle, AESH, laguntzaileak eta langileak) bai eta gurasoei ere formakuntzak proposatuko ditu.

4.4. : Baxo ondoko ikasketak euskaraz

Baxoaren ondotik ikasleek ikasketak euskaraz segitzeko aukera ukan dezaten, urteetan lan bat eraman da hegoaldeko bidea errexteko. Ondoko ikasturtean lan hori segitu beharko da.

Bestalde, lizeoaren etorkizunaren gogoetan, Iparraldean euskaraz ikasteko aukerak ikertuko dira ere.

4.5. : Azterketak euskaraz

Azterketak euskaraz lortzeko lana segituko da, lortu arte. Gobernuko solaskide berriekin lana berriz hasi beharko dugu.

5. Seaska - Hezkunde Ministeritza - Euskararen Erakunde Publikoa hitzarmena

2019-2022 hitzarmena agorrilan bururatzen da. Ondoko 3 urteetako hitzarmena negoziatu beharko genuke uda huntan, ikasturte hastapenean izenpetzeko.

6. Antolaketa

6.1 : Euskal Herriko Ikastolak : Bihar prozesua

2020 urtean Euskal Herri osoko ikastolen VII. Batzarra abiatu genuen Ikastolen Elkartea eta Euskal Herri osoko ikastolek. Baina pandemiaren ondorioz, bertan behera gelditu zen gogoetaldia.

Gogoeta berriz abiatuko dugu 2022-2023 ikasturtean. “Bihar” deituko den prozesuan ondoko hamarkadan eman beharreko urratsak elgarrekin aztertuko ditugu. Lehen urrats gisa, Euskal Herri osoko ikastoletara zabaldu den galdetegia duzue hemen https://labur.eus/Bihar-galdetegia, motorrak berotzen hasteko. Udazkenean, ikastolak eskualdeka bilduko ditugu kolegioen eremuen arabera eginen diren 4 bilkuretan (Baiona, Kanbo, Ziburu, Larzabale), ondoko 10 urteetarako Euskal Herri osoko ikastolen plan estrategiko bati gure ekarpenaren egiteko.

Eztabaida prozesua Ikastolen VII. Batzarrarekin bururatuko da.

6.2 : Irakasle ordezkoak

2021/2022 ikasturtean, Hezkunde Ministeritzak Lehen Mailako irakasle ordezkoak Bigarren Mailako irakasle ordezkoen sailkapen berean Maître Auxiliaire 1 (MA1) heinean ezarri ditu (Lehen MA2 ziren) soldatak zerbait hobetuz. Bersailkapen hori behar den bezala egin dutela zainduko dugu, irakasle bat baino gehiago MA2.2 ozkatik MA1.1 ozkara pasa baitituzte, MA1.2 ozkara pasa ordez (hiru urtero ozka igo behar litzateke).

Bestalde, bereziki Hegoaldetik heldu zaizkigun irakasle ordezkoak eta AESHk aterpetzeko proiektua bat lantzen ari da Egoitza. Robles Etxea, Estitxu Robles Arangiz kolegioan ziren bi funtziotako apartamendu zahar bategin eta 7 pertsonendako egoitza bat sortzeko xedea bada.

6.3 : Batzorde Eragilea

Ikastoletako bulegoetan bezala, Seaskako Batzorde Eragilean ere belaunaldi berri bat abiatua da. Patxi Thicoipek lau urteren ondoan bulegoa utziko du.

Gaur egun 11 ordezkarietatik 6 besterik ez dira izendatuak (koruma 7tan da). Beraz 9 buraso ordezkari ordez, 4 dira. LOTetik 2 tokiak beteak dira.

Eskualdeka so eginez, hutsuneak ageri dira :

Lapurdi Iparraldea	Lapurdi Hegoaldea	Lapurdi Barnekaldea	Baxe Nafarroa	Xiberoa
Haizea	Peio	-	-	Erik
-	Paxkal	-	-	-
-	-	-	-	-

Seaskaren misioak betetzeko, egitura guzien arteko elkarlana bultzatzeko (ikastolak, Herri Urrats, Egoitzak, Integrazio Batzordea, EHI,…) ezinbestekoa dugu jende berria sar dadin. Borondate ona besterik ez da behar Batzorde Eragileko kide izateko.